

## Beldurrik gabe bizi. Asiloaren babesaren generoaren ziozko jazarpenaren aurrean

### *Emakume zapalduen antzerki tailerra*

#### **Nor gara?**

Nazioartean babesaren premia duten eta/edo baztertuta geratzeko arriskua duten errefuxiatuen, desplazatuena, aberrigabeen eta migratzaileen Giza Eskubideak eta garapen integrala babestea eta sustatzea da CEAR-Euskadiren eginkizun nagusia. 20 urtetik gora daramatzagu asilo eskubidea babesten, eta bide horretan geure borroketako bat izan da –eta da– aipatu babesaren aitortzea generoaren zioz jazarritako pertsonen.

BaladiBabel Danza Teatro antzeztaldea 2012. urtean hasi zen egituratzen; alde batetik, antzerkiaren esparru pedagogikoan interesatuta dauden erakundeekin elkarlanean jarduteko zigilu gisa, eta bestetik, dantza egiptoarra sustatzeko gizarte izaera nabarmenarekin eta filosofia eta jardunbide feministaren ikuspegiarekin. Hainbat erakunderekin egin du lan, eta sinergiak sortu ditu gizartearen eta artearen esparruan egiazki eraldatzaileak diren proiektu iraunkorrak garatu ahal izateko beharrezkoak diren diziplinen artean.

#### **Zer da generoaren ziozko jazarpena?**

Jazarpenaren kontzeptutik abiatuz, asilo eskubidearen esparruan giza eskubideen bortxa larri edo jarraitu edo sistematikoa gisa definitzen baita, generoaren ziozko jazarpena da eskubideen bortxa horiek generoagatik (emakumea, gizona, trans edo beste izan) edo sexu lehentasunengatik pertsona bati esleitzen zaion eginkizunarekin zerikusia dutenean.

Sexu indarkeria, familia barneko indarkeria, komunitate eta nazio esparruko indarkeria (femini-zidioa, emakumeen mutilazio genitala, behartutako ezkontza, alargunak erretzea, behartutako antzutzeta, abortu selektiboa, harrikatzea...) eta sexu esplotaziorako gizakien salerosketa dira emakumeek sarritan nozitzen dituzten jazarpen moduetako batzuk. Zigorra, zenbat herrialde-tan baita heriotza zigorra ere, torturak, tratu laidogarriak (zenbaitetan estatuetako agenteek berek bideratuak), bortxaketa eta sexu gehiegikeriak, estigmatizazioa eta patologizazioa, espetxealdia eta familia barneko eta komunitateko indarkeria dira LGTTBI populazioak sarritan nozitzen dituen jazarpen mota batzuk.

## Zer proposatzen dugu jarduera honekin?

Emakume Zapalduen Antzerki Tailer baten bidez generoaren ziozko jazarpenaren eta asilo eskubidearen gaiei helduko diegu. Tailer horretan proposatzen da geure benetako historia zehatzetatik abiatzea, generoaren zioz jazarpena jasan eta zeuen herrialdeetatik alde egin eta asiloa edo babeska eskatu behar izan duzuenok bizi izandakotik abiatzea, edo familia, militantzia, lana edo adiskidetasun kontuak tarteko edo patriarkatuak eta neo-kapitalismoak emakumeen eta beren aniztasunaren aurka darabilten indarkeriak zapalduta sentitzen garelako errealitate hori gertutik ezagutzen dugunon eskarmentutik abiatzea. Horrek guztiak eramaten gaitu kontu honi heltzera eta horretan lan egitera.

Hitza hartzeko eta ekiteko aukera ematen digu antzerkiak; errealitatea zalantzan jartzeko dauzkagun komunikabideak geure zerbitzura jartzeko aukera ematen digu, eta burutu litezkeen aldaketa zehatzetarako balizko estrategiekin JOSTATUZ errealitate hori eraldatzeko aukera ematen digu. Emakume zapalduen antzerkiak zapalkuntzari modu eraginkorrean nola aurre egin erakusten du.

Honenbestez, zalantzan jar daiteke eta kolektibo bihur daiteke gertatzen ari denari buruzko publizitate- eta arau-diskurtsoa: istorio zehatzak eta borroka eta erresistentzia bide ezberdinak, parte hartzen dutenek aukeratutako hurbileko ikus-entzuleekin partekatuko duguna: tailerrean azaleratzen diren egoerak taularatuko dira ikus-entzuleek berek aurki ditzaten beste balizko amaiera batzuk.

Eta guk jolas, arte eta kulturaren aldeko aldarria egiten dugulako, baina ez haiek debalutzen dituen eta betikotzeko erabiltzen dituen sistema hierarkiko bateko gehigarri gisa ulerturik, baizik eta gu osatzen gaituzten bitarteko gisa ulerturik; izan ere, artearekin jostatuz, BIZIPOZA merezi duen bizitza eraikitzen dugun pertsonak garen aldetik, geure-geureak ditugu jolasa, artea eta kultura.

## Noiz izango da jarduera?

20 orduko tailer trinkoa da, Bilbon eskainiko da azaroaren 6an, 7an eta 8an (zehazteke dago non).

## Nola eman dezakezue izena?

Jarduera hau soilik emakumeei zuzendua da.

Parte hartu nahi baduzu, eman ezazu izena [ceareuskadi@cear.es](mailto:ceareuskadi@cear.es) helbidera e-mail bat bidalita, edo dei egiguzu 944248844 telefono zenbakira. Harremanetarako pertsona: Beatriz de Lucas Larrea.